

1. ERANSKINA

Honako ereduaren arabera aurkeztu beharko da:

Izen-abizenak:

NAN:

Jakinarazpenetarako helbidea:

Herri honetako Intxaurtxueta 26 helbidean etxebizitzak errentan emateko espedientearen berri izan dut, eta hori horrela, honako hauek adierazten ditut:

LEHENENGOA.- Kontratazioaren oinarri den baldintza agiria ezagutu eta, lehiaketan parte hartzeko, osorik onartzen dudala.

BIGARRENA.- Intxaurtxueta 26 helbideko etxebizitzaren errentamenduaren kontratazioan parte hartuko dudala.

HIRUGARRENA.- Esleipendun izateko baldintza administratibo partikularren agirian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, eta, zehazki, honako hauek:

- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako kontratatze debekuetatik bat bera ere ez izatea. 9/2017 Legearen bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.*

- *Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.*

- *Kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako edozein ordenako epaitegi eta auzitegien menpekotasuna onartzea, eta hala badagokio, lehiatzaileak dagokiokoen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitea (atzerriko lehiatzaileen kasuan).*

- *Jakinarazpenak bidaltzeko helbide elektronikoa honako hau dela:*

LAUGARRENA.- Aitorpen honen hirugarren puntuan aipatutako dokumentuak ditudala eta horiek baliozkoak direla egiaztatze konpromisoa hartzen dudala kontratuaren esleipendun izateko proposatutakoa izanez gero edo eskatzen zaidan edozein unetan.

BOSGARRENA.- BAIMENA ematen diodala berariaz Eskoriatzako Udalari sektore publikoko edozein erakundetik zuzenean jasotzeko goian adierazitako etxebizitza errentan hartzeko eskatzen diren baldintza betetzen ditudala egiaztatze beharrezko datuak.

BAI/Sí **EZ /No**

Eta jasota gera dadin, aitorpen hau sinatzen dut.

Eskoriatzan, 2019ko _____ren___ (e)(a)n

Lehiatzailearen sinadura

BIZIKIDETZA EDO FAMILIA UNITATEAREN DATUAK

BAIMENA ematen diot berariaz Eskoriatzako Udalari sektore publikoko edozein erakundetik zuzenean jasotzeko udal etxebizitza bat eskatzeko behar diren baldintzak betetzen ditudala egiaztatzeko beharrezko datuak.

Izen-abizenak	NAN	Sinadura